



ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arregui Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz ondorengo agintzea erabaki dut:

Artikulu hauetan xedatutakoa betetzeko: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. eta 46. artikulua; Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea; eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakunde Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 79., 80 eta 82. artikulua.

Onartutako saioen egutegia ikusita.

Alkate-udalburua naizenez, bai eta toki-araubidea arautzen duen indarreko araudiak ematen dizkidan ahalmenak ikusita,

Erabaki dut:

Udalbatzaren ohiko bilkurarako deia egitea. Bilkura hori udal honetako Osoko Bilkuren Aretuan egin beharko da, 2021eko urriaren 28an, 18:30etan, lehen deialdian, eta bi egun geroago eta ordu berean, bigarrenetan. **Gai-zerrendako gai hauek aztertuko dira:**

1. Onartzea, hala badagokio, 2021-09-27ko ohiko osoko bilkuraren akta, (8.2021).
2. Onartzea, hala badagokio, 2021-10-21ko ez-ohiko eta premiazko osoko bilkuraren akta, (9.2021).
3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udal interes edo erabilera berezikotzat ez hartzea zerrendatzen den eskatzailearen obra, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko urriaren 5an.
4. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Selma Huxley Barkham bekaren III. Deialdiariaren oinarri arautzaileen eta 2021eko deialdiaren onarpena, Berdintasun Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko urriaren 19an.
5. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko XIV. Erakusleihu Lehiaketaren oinarrien onarpena eta deialdia, Sozioekonomia eta turismo Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko urriaren 13an.
6. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen diren eskatzaileen obrak, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko urriaren 19an.
7. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Deba Garaiko Udal Elkartearen ordezkotza berria izendatzea, puntua gai-zerrendan sartzea berretsi ondoren.
8. Hala badagokio, presako gaiak.

9. EH BILDU eta EAJ udal taldeek aurkeztu duten mozioa, Salba dezagun Sultana Jayaren bizitzari buruz.
10. Hala badagokio, larrialdi-mozioak.
11. Irailaren 23tik urriaren 22ra bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 955 zenbaitik 1077 zenbakira.
12. Galderak eta eskaerak.

Jakinaraz bekie berehala Udalbatzako zinegotzi guztiei, eta ohartarazi Idazkaritzan eskura dutela gai-zerrendan jaso diren aztertu beharreko gaiei buruzko dokumentazioa, eta, arrazoi justifikaturen bat dela-eta bilkurara joaterik ez badute, alkate-udalburuari jakinarazi beharko diotela, behar besteko aurrerapenaz.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut

Oñatin, 2021eko urriaren 25ean

Alkateak



Izaro Elorza Arregui